

ERREGELAMENDU ORGANIKOA, KIROL-ARLOKO INDARKERIAREN, INTOLERANTZIAREN ETA DISKRIMINAZIOAREN KONTRAKO DIZIPLINA-BATZORDEAREN OSAERA ETA FUNTZIONAMENDUARI BURUZKOA.

1. artikulua.- Erregelamenduaren xedea.

Erregelamendu honen xedea da arautzea nola antolatu eta osatu KIIDDB Kirol-arloko Indarkeriaren, Intolerantziaren eta Diskriminazioaren kontrako Diziiplina Batzordea, EKFB Euskadiko Kirol Federazioen Batasunera adskribatuta dagoena, eta zein diren haren izendapen-sistema, funtzionamendu-araubidea eta funtzioak.

2. artikulua.- Euskadiko Kirol Federazioen Batasunaren izaera.

1.- Kirol-arloko Indarkeriaren, Intolerantziaren eta Diskriminazioaren kontrako Diziiplina Batzordea zerbitzu bat da, EKFBri adskribatuta dagoena eta independentzia osoaz diharduena; hierarkikoki, ez dago Euskal Autonomia Erkidegoko inongo organoren mende, ez EKFBren beraren mende, ez Euskadin haren barruan dauden kirol-federazioen mende.

2.- Batzorde horrek federazio-instantzia bakar batean erabakitzen ditu bere eskumeneko diziiplina-auzigaiak.

3. artikulua.- Eskumenak.

Kirol-arloko Indarkeriaren, Intolerantziaren eta Diskriminazioaren kontrako Diziiplina Batzordearen eskumena da: ezagutzea eta ebaztea EKFBk eskaintzen duen zerbitzura lotzen diren euskal kirol-federazioek sustatzen dituzten espediente guztiak, zerikusia dutenak entitate horien barruan jokabide bortitz, intolerante eta diskriminatzailetzat jo daitezkeen ekintzekin; bat etorritik arlo horretan dagoen diziiplina-erregelamendu espezifikoak ezartzen duenarekin.

4. artikulua.- Osaera.

1.- Hiru kide titularrek osatuko dute Kirol-arloko Indarkeriaren, Intolerantziaren eta Diskriminazioaren kontrako Diziiplina Batzordea, eta hirurek izan beharko dute Zuzenbideko lizentziatura edo gradua, eta esperientzia aitortua arlo juridikoan eta kirolekoan.

2.- Gutxienez, bik prestakuntza eta esperientzia egiaztatua izan beharko dute berdintasunaren edota adingabeen babesaren eremuan.



3.- Horrez gain, batzorde hori ordezeko batek ere osatuko du, kide titularrak absente edo gaixorik daudenerako edota dimititzen dutenerako edota beste edozein arrazoi legal gertatzen denerako (heriotza, abstentzioa, errekusazioa eta abar). Ordezkoak titularren betekizun berak bete beharko ditu.

4.- Kirol-arloko Indarkeriaren, Intolerantziaren eta Diskriminazioaren kontrako Diziiplina Batzordeak lehendakari bat eta lehendakariorde bat hautatu beharko du bere kideen artean.

5.- Idazkari batek lagunduko dio Kirol-arloko Indarkeriaren, Intolerantziaren eta Diskriminazioaren kontrako Diziiplina Batzordeari. EKFBk izendatuko du idazkari hori, zeinak hitza izango baitu, baina botorik ez. Idazkariak, bestalde, Zuzenbideko lizentziatura izan beharko du. Hura absente edo gaixorik dagoenean edota beste arrazoi legalen bat gertatzen denean, EKFBk ezaugarri bereko beste pertsona bat izendatu ahal izango du hura ordezkatzeko.

6.- Adituen txosten edo iritzi espezializaturik behar izanez gero, batzordeko lehendakariak eskatu ahal izango du beste pertsona batzuk bertaratzea edo parte hartzea KIIDDBren saioetan. Pertsona horiek ezagutzak izan beharko dituzte aztertu beharreko gaiei edo eztabaidagaiei buruz; bestetik, hitza izango dute, baina botorik ez.

5. artikulua– Izendatzea, ordezkatzeta, etetea eta kargutik kentzea.

1.- EKFBko zuzendaritza-batzordeak izendatuko ditu Kirol-arloko Indarkeriaren, Intolerantziaren eta Diskriminazioaren kontrako Diziiplina Batzordeko kideak; era berean, zuzendaritza-batzorde horrek kenduko ditu kargutik, edota eten edo ordezkatuko ditu.

2.- Kirol-arloko Indarkeriaren, Intolerantziaren eta Diskriminazioaren kontrako Diziiplina Batzordeko kideek nabarmenki irregular jardunez gero edo larriki bete ezean beren betebeharrak, EKFBk eten ahal izango ditu, edo, nolana ere, kargutik kendu ahal izango ditu, kontraesaneko espedientea izapidetu eta gero.

6. artikulua.– Mandatua.

1.- Kirol-arloko Indarkeriaren, Intolerantziaren eta Diskriminazioaren kontrako Diziiplina Batzordeko kideen mandatua-aldia lau urtekoa izango da, formalki izendatzen diren datatik aurrera zenbatuta.

2.- Ordezkoen mandatuaren iraupena bat etorriko da ordezkatuak betetzeke duen iraupenarekin, batzordea dena batera berriztatu dadin.



3.- Edozer dela-eta atzeratzen bada batzorde-berritzea, kargua uzten dutenak berez geratuko dira luzapen-egoeran, eta beren funtzioak betetzen segituko dute harik berritzea efektiboa izan arte. EKFBko zuzendaritza-batzordeak beharrezkotzat joz gero, posible izango da batzordekideen mandatua luzatzea, kide guztiena edo haietako batzuen.

7. artikulua.– Batzordekideen betebeharrak eta eskubideak.

1.- Kirol-arloko Indarkeriaren, Intolerantziaren eta Diskriminazioaren kontrako Diziiplina Batzordeko kideek eginbeharra dute batzordeko saioetan bertaratzeko.

2.- Baldin eta Kirol-arloko Indarkeriaren, Intolerantziaren eta Diskriminazioaren kontrako Diziiplina Batzordeko kideren batek ezin baditu bete aldi batean bere funtzioak, horren berri eman beharko dio EKFBko zuzendaritza-batzordeari, dagokion ordezkoiari dei egin diezaion aldi baterako beregana ditzan bere funtzioak.

3.- Kirol-arloko Indarkeriaren, Intolerantziaren eta Diskriminazioaren kontrako Diziiplina Batzordeko kideei ordaindu ahal izango zaie, EKFBko zuzendaritza-batzordeak finkatzen dituen ordainsarien arabera.

8. artikulua.– Antolaketa.

1.- Kirol-arloko Indarkeriaren, Intolerantziaren eta Diskriminazioaren kontrako Diziiplina Batzordeak osoko bilkuran jardun ahal izango du.

2.- Kide guztiek osatuko dute osoko bilkura; nolanahi ere, osoko bilkurari egokituko zaio:

- a. Ezagutzea eta ebatzea irekitako espediente guztiak.
- b. Ezagutzea zer auzigai uste duen lehendakariak, garrantzitsuak direlako, osoko bilkuran ebatzi behar direla, eta auzigaiok ebatzea.
- c. Onartzea zer irizpideren arabera banatu behar diren auzigaiak eta zein diren ponentzien txandak.

9. artikulua.– Eraketa.

1.-Kirol-arloko Indarkeriaren, Intolerantziaren eta Diskriminazioaren kontrako Diziiplina Batzordeko osoko bilkura baliozkotasunez eratuko da baldin eta presente badaude lehendakaria –edo, hura ez dagoenean, lehendakariordea– idazkaria eta, gutxienez ere, osoko bilkurako kideetako bat.

10. artikulua.– Bateriaezintasun-arrazoiak.

Kirol-arloko Indarkeriaren, Intolerantziaren eta Diskriminazioaren kontrako Diziiplina Batzordeko kide izateko bateraezintasun-arrazoiak izango dira indarrean dagoen legeriak aurreikusten dituenak.

11. artikulua.- Abstentzio- eta errekusazio-arrazoiak.

Indarrean dagoen legeriak aurreikusten dituen abstentzio- eta errekusazio-arrazoiak aplikatu ahal izango Kirol-arloko Indarkeriaren, Intolerantziaren eta Diskriminazioaren kontrako Diziiplina Batzordeko kideei.

12. artikulua.– Lehendakariaren eginkizunak.

1.- Osoko bilkurako lehendakariari dagokio:

- a. Batzordea edozein erakunde, organismo, entitate edo pertsonaren aurrean ordezkatzeari mota guztietako ekintza eta izapideetan.
- b. EKFBri eskatzea kide titular bat ordezkari batekin ordezkari dezan, baldin eta kideren bat aldi baterako bakan badago absente edo gaixorik dagoelako.
- c. Zaintza batzordeak ondo funtziona dezan; horretarako, bere eskumen-arloa arautzen duten arauak betetzea eta betearaztea, erabakiak hartzea batzordearen ordena egokia bermatzeko, gaiak normaltasunez bideratzea, eta zaintza ea batzordeko kideek behar bezala betetzen dituzten beren funtzioak.
- d. Osoko bilkuretarako deiak egitea; bilkura horietan buru izatea, deliberamenduak gidatuz.
- e. Bere karguarekin lotutako antzeko beste edozein funtzio betetzea.

13. artikulua.- Lehendakariaren funtzioak.

Lehendakariordeak egikaritu beharko ditu, behin-behinean, aurreko artikuluan zerrendatzen diren funtzioak, baldin eta lehendakaria absente edo gaixorik badago, edo beste arrazoi legalen bat gertatzen bada (heriotza, abstentzioa, errekusazio eta abar).

14. artikulua.- Idazkariaren funtzioak.

Indarkeriaren, Intolerantziaren eta Diskriminazioaren kontrako Diziiplina Batzordeko idazkariari funtzio hauek dagozkio:

- a. Beharrezko laguntza ematea batzordekideei.
- b. Korrespondentzia ofiziala eramatea, eta hura erregistratzea.



- c. Lehendakariaren oniritziarekin, izapide hutseko komunikazioak sinatzea eta ematea.
- d. Lehendakariaren oniritziarekin, ziurtagiriak ematea; baita interesdunek eskatzen dituzten testigantzak eta kopiak ere.
- e. Botere-banakapenak eta intesdunek edo entitate interesdunek aurkeztutako beste dokumentu batzuk egitea.
- f. Lehendakariaren edo lehendakariordearen deialdiak bideratzea, eta adieraztea zein den bilkuren eguna, ordua eta gai-zerrenda.
- g. Zaintzea zorrotz betetzen direla izapide guztiak, eta ohartaraztea ustez zer forma-akats gertatu den.
- h. Labur-labur eta osorik prestatzea espedienteetako apuntamenduak, ezagu ditzaten batzordeko kideek, hain zuzen ere ezagutzea dagokienez.
- i. Batzordekideen arteko gai-banaketa eta ponentzia-esleipena eramatea, kontuan hartuz zer txanda-sistema ezarri duten haiek.
- j. Batzordeko dokumentazioa eta artxiboak kontserbatzea eta zaintzea
- k. Pertsona edo entitate interesdunei jakinaraztea zer ebazpen eman dituen batzordeak.
- l. Batzordeko saioetan bertaratzea, eta haien garapenaren berri ematea.
- m. Batzordeak lehendakariaren bidez aginduta, bere karguarekin zerikusia duen beste edozein funtzio betetzea, komenigarria dena batzordeak hobeto funtziona dezan.

15. artikulua– Osoko bilkurako saioak eta gainerako jarduketak

EKFBko egoitzan egingo dira osoko bilkurako saioak eta gainerako jarduketak, salbu eta, lehendakariak erabakitzen badu beste leku batean egitea saio zehatzen bat. Era berean, lehendakariak eskatuta, saioak modu telematikoan edo urrunetik egin ahal izango dira bideokonferentziaz edo antzeko mekanismo baten bidez.

2.- Saioetan, soilik eztabaidatu ahal izango dira gai-zerrendako gaiak, ez besterik.

3.- Salbuespen modura, gai-zerrendatik kanpoko auzigaiak ere eztabaidatu ahal izango dira, baldin eta kide guztiak presente badaude, deklaritzen bada auzigaia presakoa dela, eta gehiengoak aldeko botoa ematen badu.

4.- Kirol-arloko Indarkeriaren, Intolerantziaren eta Diskriminazioaren kontrako Diziiplina Batzordeak komunikazio telematikoko mekanismoak aplikatuko ditu espedienteak izapidetzeko; betiere, mekanismo horiek bat badatoz indarrean dagoen lege-esparruarekin. Mekanismo horiek erabiliko dira hala hirugarren edo entitate interesdunekin nola barruko kideekin dauden harremanetan, eta, betiere, errespetatuko da errespetatzen direla administrazio-jarduketa gidatzen duten printzipio legalak.

16. artikulua.– Espedienteak izapidetzea.

Espedienteak izapidetzean, bete gin beharko da Kirol-arloko Indarkeriaren, Intolerantziaren eta Diskriminazioaren kontrako Diziiplina Erregelamendua.

17. artikulua.– Kautela-neurriak.

Kirol-arloko Indarkeriaren, Intolerantziaren eta Diskriminazioaren kontrako Diziiplina Batzordeak eskatu ahal izango du beharrezko kautela-neurriak hartzeko epaitzaren eraginkortasuna babesteko, edo kalte edo galera erreparaezinik gerta ez dadin.

18. artikulua – Ebazpena

1.- Kirol-arloko Indarkeriaren, Intolerantziaren eta Diskriminazioaren kontrako Diziiplina Batzordearen saioetan hartuko dira batzorde horren ebazpenak, eztabaidatu eta bozkatu ondoren; gero, akta jasoko da, zeinean adieraziko baita zer akordio hartu diren. Bozketan parte hartzen duten kideek sinatu egingo dute zer adostu duten, nahiz eta ez egon ados gehiengoarekin.

2.- Arrazoitu egin beharko dira Kirol-arloko Indarkeriaren, Intolerantziaren eta Diskriminazioaren kontrako Diziiplina Batzordearen ebazpen guztiak, eta labur-labur jaso beharko da zer egitatek eta legezko oinarrik justifikatzen duten xedapen-testua; era beran, adierazi beharko da, hala badagokio, zer errekurtsio jarri ahal den.

3.- Akordioak hartzeko, saioan presente dauden kide guztien gehiengoaren aldeko botoa lortu beharko da, eta, berdinketetan, erabakigarria izango da lehendakariaren botoa; era berean, presente dauden disidenteei beti izango dute eskubidea beren boto partikularra sartzeko akordioan. Kideek nahitaez bozkatu beharko dute.

4.- Bozkatzeko unean adierazi ahal izango da boto partikularra emango dela, eta boto partikular horrek egilearen sinadura eduki beharko du. Boto partikular hori, bestalde, idatzita aurkeztu beharko da, bilkura egin, eta gehienez ere berrogeita zortzi orduko epean, eta alderdiei jakinaraziko zaie, gehiengoak onartutako testuarekin batera.

5.- Kirol-arloko Indarkeriaren, Intolerantziaren eta Diskriminazioaren kontrako Diziiplina Batzordearen ebazpenek amaiera ematen diote federazio-bideari, eta Kirol Justiziako Euskal Batzordean errekurritu ahal izango dira.

19. artikulua– Ebazpen argigarriak eta zuzentzaileak.

Kirol-arloko Indarkeriaren, Intolerantziaren eta Diskriminazioaren kontrako Diziiplina Batzordeak ebazpenak sinatu ostean, ez du aukerarik izango ebazpenik aldatzeko, baina



bai ebazpenok argitzeko. Interesdunek eskatuta argituko ditu ebazpenak; horretarako, aurretik, idatziz eskatu beharko da argitzeko, ebazpena jakinarazi, eta bi egun balioduneko epearen barruan. Soilik argitu ahal izango da kontzeptu ilunen bat, eta zuzendu ahal izango dira ebazpeneko errore materialak. Kirol-arloko Indarkeriaren, Intolerantziaren eta Diskriminazioaren kontrako Diziiplina Batzordeak eskabidea jaso, eta, gehienez ere, hamar egun balioduneko epea izango du argibideak emateko eta akatsak zuzentzeko.

20. artikulua – Ebazpenen edukia

1.- Kirol-arloko Indarkeriaren, Intolerantziaren eta Diskriminazioaren kontrako Diziiplina Batzordearen ebazpenak argitara eman ahal izango dira, pertsonen ohorerako eta intimitaterako eskubideak errespetatuz; bat etorriz indarrean den legeriarekin.

2.- Interes legitimoa egiaztatzen duten pertsonen irispidea izango dute Batzordearen liburueta eta artxiboetara, baldin eta haiek izaera erreserbatua ez badute; era berean, lortu ahal izango dituzte, beren kontura lortu ere, adierazten dituzten testigantzak edo ziurtagiriak.

21. artikulua – Ebazpenen edukia

Kirol-arloko Indarkeriaren, Intolerantziaren eta Diskriminazioaren kontrako Diziiplina Batzordeak emandako ebazpenak, lehen instantzian, Euskadiko dagokion federazioaren bidez exekutatuko dira, federazio horrek izango baitu haiek eraginkortasunez egikaritzeko ardura. Halakorik egon ezean, Kirol-arloko Indarkeriaren, Intolerantziaren eta Diskriminazioaren kontrako Diziiplina Batzordeak bereganatu du exekuzio hori.

22. artikulua – Batzordearen hizkuntza ofizialak.

1.- Kirol-arloko Indarkeriaren, Intolerantziaren eta Diskriminazioaren kontrako Diziiplina Batzordera jotzen duten interesdunek aukera izango dute autonomia-erkidegoko hizkuntza ofizialak erabiltzeko.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen dira, orobat, erregelamendu honen maila bereko edo beherakoko arau guztiak.

AZKEN XEDAPENA

Erregelamendu hau indarrean sartuko da, EKFBk onartu, eta hurrengo egunean.



Jon Arruti Altube
Presidentea



Chema Cortés Lavaud
Idazkaria